| 160. Turismoaren eta Merkataritzaren Plan Estrategikoa: 2030erako Turismoaren eta Merkataritzaren Euskal Estrategia/Turismoaren eta merkataritzaren ekintza-planak (2023-2025) |
| 161. Baliabide turistikoen lurralde-plan sektoriala |
| 162. Helmuga turistikoen plan zuzentzaileak |
| 163. EAEko Merkataritzaren Ekintza Plana 2026-2030 |
| 164. Turismoko Ekintza Plana (2026-2030) |
| 165. Kontsumobideren 2022-2024 Plan Estrategikoa |
| ELIKADURA, LANDA-GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA (indarrean dauden edo prestatzen ari diren planak 15) |
| 166. Landa Garapeneko Estrategia 2030 - Lurralde-garapeneko programa eta landa-garapeneko eskualdeko programak |
| 167. Euskadiko NPBren Plan Estrategikoa (2023-2027) |
| 168. Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa 2030 |
| 169. Nekazaritzako elikagaien katearen kontrol ofizialerako plana (2021-2025) |
| 170. Euskadiko Elikagaien Industria Sustatzeko Plana 2024 |
| 171. Euskal Ikerketa plana, baserritik mahaira (2022-2026) |
| 172. Elikagaiak xahutzearen aurkako euskal estrategia |
| 173. Ekoizpen Ekologikoa Sustatzeko Plana (FOPE) |
| 174. Sasoikako lanaren arretarako V. Plana (2022-2024) |
| 175. Euskadiko baso plangintza 2030 |
| 176. Egurraren sektoreko plan estrategikoa 2021-2024 |
| 177. Akuikulturaren garapenerako plan estrategikoa 2030 |

| |
|---|
| 178. EUSKOBASOA 2050 baso hobekuntzarako I+G+B plana |
| 179. Euskadiko elikaduraren eta egurraren balio-katearen laneko segurtasun eta osasunerako estrategia sektoriala (2019-2025) |
| 180. Belaunaldien arteko erreleborako estrategia integrala |
| JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK (indarrean dauden edo prestatzen ari diren planak 9) |
| 181. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2024 |
| 182. Gogora Institutuaren 2025-2028 Plan Estrategikoa |
| 183. Justizia Digitalaren Plana (2021-2026) |
| 184. Egoitza judizial jasangarrien plana (2022-2030) |
| 185. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako jarduera-plana |
| 186. Gazte Justiziaren VI. plana 2025-2029 |
| 187. EAEko Justizia Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko plan orokorra (2023-2032) |
| 188. Justiziaren Plan Estrategikoa (2022-2028) |
| 189. Justizia Errestauratiboaren Euskal Estrategia 2022-2025 |
| 190. Desgaitasuna duten pertsonei justiziarako sarbidea errazteko plana (2023-2027) |

# 5

# GOBERNU-PROGRAMAREN JARRAIPEN-ADIERAZLEEN SISTEMA


15722,14

# 5. GOBERNU-PROGRAMAREN JARRAIPEN-ADIERAZLEEN SISTEMA.

## 1. Euskadiko lan-merkatua

2025ean, lan-merkatuak indarra erakutsi zuen, Gizarte Segurantzako afiliazioaren (milioi bat kotizatzaile baino gehiago) eta enplegu-sorreraren (+14.000 lanpostu) errekor historikoarekin, nahiz eta urtearen amaieran langabeziak gorakada txiki bat izan zuen, eta horrek urte arteko igoera ekarri zuen. Nolanahi ere, joera orokorra positiboa izan zen. Nabarmentzekoak dira, batetik, Zerbitzuak eta Eraikuntza, eta, bestetik, egonkortasun handiagoa kontratu mugagabeei esker, nahiz eta erronka batzuk (hala nola behin-behinekotasuna) mantentzen diren. Alderdi positibo gisa:

- Afiliazio-errekorra: milioi bat kotizatzaile baino gehiago izan ziren, eta 12.000 afiliatu baino gehiagoko igoera izan zen 2025ean.
- Enplegua sortzea: lanaldi osoko 14.000 enplegu baino gehiago sortu ziren, hazkunde ekonomikoak bultzatuta (%2,3ko igoera urte arteko BPGan, 2025eko 3. hiruhilekoan).
- Kontratu mugagabeak: kontratazio mugagabea hobetu egin da, eta daturik onena lortu da 2023tik. Aurreko urtearekin alderatuta, igoera esanguratsua izan da.
- Sektore gakoak: Zerbitzuak (motor nagusia) eta Eraikuntza (erritmo positiboa) izan ziren hazkundearen buru, eta Industriak susperraldiaren zain jarraitzen du.

Erronkatzat identifikatu da behin-behinekotasuna eta partzialtasuna hobetzea.

### 1.a) Gizarte Segurantzako afiliatuen kopurua

2025EKO HILEKO DATUAK

| Urtarrila | Otsaila | Martxoa | Apirila | Maiatza | Ekaina |
|---|---|---|---|---|---|
| 1.014.506 | 1.017.897 | 1.022.439 | 1.024.840 | 1.029.049 | 1.023.299 |
| **Uztaila** | **Abuztua** | **Iraila** | **Urria** | **Azaroa** | **Abendua** |
| 1.023.299 | 1.006.795 | 1.018.270 | 1.031.670 | 1.036.074 | 1.036.804 |

Iturria: Gizarte Segurantza. Afiliazio-kopurua.

Ekitaldi berean lehen aldiz, Gizarte Segurantzako afiliatu-kopuruak milioi bat kotizatzaile baino gehiago izan ditu, eta hori lan-merkatuaren sendotasunaren sintomatzat har daiteke. Azpimarratu beharra dago abenduko afiliazioen kopurua serie historikoko handiena izan dela.

### 1.b) Enplegua eta laneratzea

Enpleguaren eta laneratzearen kasuan, Euskadi errendimendu akademiko handiena duen eta kalitate handieneko enplegua lortzen duen erkidegoetako bat da. Hain zuzen ere, Lanbideren Laneratzeari buruzko azken Inkestak, 2021ean ikasketak amaitu zituztenei buruzkoak, agerian uzten du ikasleen % 87k beren kualifikazioari egokitutako enplegua lortu dutela ikasketak amaitu eta hiru urtera. Era berean, % 77k bere titulazioarekin lotura zuzena duen lanpostu batean lan egiten du. 2024aren amaieran, 2021eko promozioaren % 91k enplegua zuen, eta % 5,56k prestakuntza jasotzen jarraitzen zuen.

EAEko ikasleek jasotzen duten prestakuntza da laneratze-datu horien gakoa. Horrela, CYD Fundazioaren Txostenaren arabera, Euskadik laugarren ehuneko handiena du Estatuan, titulazioari egokitutako enpleguaren eta lanaldi osoko lanagatiko urteko diru-sarrera handiagoen arabera. Masterretan ere emaitzak aldekoak dira: bosgarren lekuan dago kontratu mugagabeetan, laugarrenean lanaldi osoko kontratazioen proportzioan eta laugarrenean urteko batez besteko kotizazio-oinarrian.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da, halaber, Euskadin laneratze-adierazle onenak dituzten tituludunak, txosten beraren arabera, ingeniaritzan, industrian eta eraikuntzan graduatuak direla, eta, ondoren, informatikan eta osasunean graduatuak.

Gainera, enplegua gero eta egonkorragoa da. Lanbideren arabera, 2021ean titulua lortu zutenen% 61ek kontratu finkoa dute. Gizonen artean, % 68k dute kontratu finkoa, eta emakumeen artean, % 55ek. 2021eko promozioaren langabezia-tasa % 9koa da.

Soldatari dagokionez, 2021eko promozioaren batez besteko soldata garbia (lanaldi osoan) 1.751 eurokoa da. Gizonek batez beste 1.820 € irabazten dute, eta emakumeek 1.693 €.

Ingeniaritzan, industrian eta eraikuntzan ikasketak amaitu dituzten ikasleen urteko batez besteko kotizazio-oinarria Estatuko unibertsitate presentzial guztiena baino 1.400 euro inguru handiagoa da.

Datu multzo hori –unibertsitaterako sarbidea, errendimendu akademiko handia, langabezia-tasa txikia, egokitutako enpleguaren ehuneko handia, lan-egonkortasunaren hobekuntza nabarmena eta soldata konparatiboki altuak–, neurri handi batean, kalitatezko hezkuntza-sistema baten emaitza da.

Termino konparatiboetan, Euskadik Europar Batasuneko batez bestekoa gainditzen du unibertsitate-ikasketak amaitzean lortutako laneratzeari buruzko datuetan. Era berean, eskuragarri dauden 2024ko azken datuen arabera, sei ehuneko-puntu hobetu da Estatuarekin alderatuta ( % 79,0).

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Euskadi** | 73,5 | 82,9 | 86,9 | 83,8 | 80,7 | 79,5 | 83,2 | 85,3 | 85,1 |
| **Espainia** | 68,0 | 71,9 | 75,4 | 73,0 | 69,6 | 72,3 | 78,8 | 78,7 | 79,0 |
| **EB-27** | 77,4 | 79,0 | 80,9 | 81,0 | 78,7 | 79,5 | 82,4 | 83,5 | 82,3 |

Ikasketak amaitu zituztenetik 3 urte igaro ondoren lanean ari diren 20 eta 34 urte bitarteko tituludun berrien ehunekoa.

Iturria: Euskadi: Lanbide. Espainia eta Europa: Eurostat

## 2. Osakidetzako itxaron-zerrendak

OSAKIDETZAK 2025EKO AZAROAREN 28AN ARGITARATUTAKO AZKEN DATUEN ARABERA, EGOERA HONAKO HAU DA:

| | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2025 |
|---|---|---|---|---|---|
| **EBAKUNTZA KIRURGIKOAK** | 70,8 | 73,0 | 62,3 | 59,0 | 54,2 |
| **OSPITALEKO KONTSULTAK** | 39,3 | 68,9 | 82,2 | 59,7 | 56,5 |

Iturria: Osakidetzaren memoria. Itxaron-zerrendak.

Atzerapen-egunak.

Abiapuntutzat hartzen badugu Osakidetza-Euskal Osasun Sistemaren tentsio jarraitua (batez ere COVID-19aren pandemiatik aurrera), aurkeztutako datuetatik ondorioztatzen den joera da etengabe murrizten direla Osakidetza-Euskal Osasun Sistemaren zerbitzuak eskuratzeko itxarote-egunak. Horrela, ebakuntza

kirurgikoetarako itxaron-zerrendak behera egin du bost urtean, batez beste 70,8 egunetik 54,2 egunera; azken datu hori hobetzeko ahaleginak egiten jarraitzeko konpromisoa hartu du Eusko Jaurlaritzak.

Autonomia-erkidegoekin alderatuta, 2024ko ekitaldiko datuaren arabera (datuok beti hobetu badaitezke ere), EAEk daturik onenak ditu «espezialistarekin lehen kontsulta egiteko itxarote-egunetan». Positiboki aipagarriak dira, halaber, konparazio gisa, lehen mailako arretako 24-48 orduko hitzorduen ehuneko-datuak (6. daturik onena) eta ebakuntza kirurgikoetarako itxarote-egunen datuak (2. daturik onena).

LEHENENGO KONTSULTA ESPEZIALISTAREKIN




Iturria: https://fadsp.es/listas-espera-salud-individual/

## 3. Jaiotza-tasa

2025EKO IRAILAREN 15EAN, DATU HAUEK DAUDE

| | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Euskadi** | 8,9 | 8,7 | 8,4 | 7,0 | 7,4 | 7,0 | 6,7 | 6,5 | 6,2 | 6,1 | 5,8 |
| **Espainia** | 9,2 | 9,0 | 8,8 | 8,4 | 7,9 | 7,6 | 7,2 | 7,1 | 6,9 | 6,6 | 6,5 |
| **EB-27** | 9,8 | 9,7 | 9,8 | 9,7 | 9,5 | 9,3 | 9,1 | 9,2 | 8,7 | 8,2 | 7,9 |

Iturria: INE eta Eurostat

Bestalde, jaiotzen kopuruak etengabe egin du behera, eta, ikuspegi historikoago batetik, datu hauek ematen ditu: 1975ean, 41.100 haur jaio ziren Euskadin, eta 2024an, berriz, 12.937, hau da, laurdena baino pixka bat gehiago.

Jaiotza-tasak beherantz jarraitzen du Euskadin, eta hamarkada bat baino gehiagoko beherakada jarraitua metatzen du (egia da azken bi hiruhilekoetako datuek gorakada txiki bat erakusten dutela, baina oraindik ez da joeratzat hartu behar). Ez da bat-batean erori, baina bai etengabe eta sakonki. Hamahiru urte eskasetan, 2011tik, jaiotza-tasak % 39,07 egin du behera. Urte horretan 21.159 haur jaio ziren; gaur egun ez dira 13.000ra iristen. Joera ez da berria, baina, oraingoz, urtez urte larriagotzen da.

Egia da “negu demografiko” hori arindu egiten dela jatorri atzerritarreko biztanleen hazkunde etengabearen ondorioz: 1998an 26.000 pertsona ziren, eta gaur egun 296.000 baino gehiago dira.

Errealitate horren aurrean, Jaurlaritzak neurri sorta bat jarri du abian arazoari aurre egiteko, Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren barruan.

Dekretu berri bat izapidetzen ari da, seme-alaba bakoitzeko hilean 200 euroko laguntza jaiotzatik zazpi urtera arte luzatzea aurreikusten duena. Laguntza horrek hazkuntzaren karga ekonomikoa arindu nahi du etapa bereziki zail horretan. Familia ugariean kasuan ere hobekuntzak egongo dira: seme-alaba bakoitzeko ematen diren 100 euroek zazpi urtera arte iraun beharrean, hamar urtera arte luzatuko dira.

Beste neurri azpimarragarri bat haurtzaindegi publikoak zero eta bi urte bitarteko haurrentzat doan izatea da. Eusko Jaurlaritza guraso-baimenak ere  hobetzen ari da. Eszedentziei buruzko egungo dekretua pixkanaka zabaltzea aurreikusten da, familiek 24 astera bitarte hartu ahal izan ditzaten seme-alabak zaintzeko — gaur egun 16 aste dira—, eta, horrela, gurasoen arteko erantzunkidetasuna handiagoa izan dadin.

Kontziliazioa: hainbat programa gauzatzen ari dira, eta 25,1 milioi euro bideratzen dira eremu horretarako laguntzetara. 390.000 €, jaiotzengatik eta urtebete baino gutxiagoko semea edo alaba zaintzeagatik ematen diren kotizaziopeko prestazioen aldiak ama eta aiten artean parekatzeko; 23,5 milioi €, 3 urtetik beherako haurrak zaintzeko eszedentzia hartu duten edo 12 urtetik beherako haurrak zaintzeko lanaldia murriztu duten langileentzat; eta 1,2 milioi €, mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko.

Beste alde batetik, 25 eta 29 urte bitarteko gazteei zuzendutako Emantzipa Programa hedatu da, eta hilean 300 €-ko laguntza ekonomikoa ematen da 24 hilabetez, lehen etxebizitza alokatzen edo erosten laguntzeko.

Gaztelagun laguntza-programa ere aldatu da, alokairuaren prezioen igoerara egokitzeko eta eremu tentsionatuetako onuradunengana zabaltzeko.

Era berean, aipagarria da Euskal Finantza Erakundeak kudeatzen duen Gazteaval programa, 40 urtetik beherako gazteei lehen etxebizitza erosteko abalak ematen dizkiena. Programa horren helburua da 40 urtetik beherako gazteei emantzipatzen eta Euskadin lehen ohiko etxebizitza eskuratzen laguntzea.

Gainera, guraso bakarreko familiak arautzen dituen abenduaren 2ko 232/2025 Dekretua onartu da eta indarrean dago, laguntza espezifikoak eskuratu ahal izan ditzaten, familia ugariekin egiten den bezala. Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko zailtasun handienak dituzten familiak dira horiek, eta Euskadin, familia horien % 80 emakumeek osatzen dituzte.

## 4. BPG per capita

EAEko per capita BPGak hazkunde etengabea izan du 2012tik, 41.010 eurora iritsi da 2024an (urte hartan baino 12.421 € gehiago), eta Espainia (32.633 €) eta EB-27ko batezbestekoa (39.940 €) gainditu ditu.

Bestalde, Euskadi, 41.010 eurorekin, per capita BPG altuena duen autonomia-erkidegoetako bat da Espainian, Madrilgo Autonomia Erkidegoaren atzetik soilik.

Konparazioari dagokionez, 2024ko ekitaldiko datuen arabera, batez besteko per capita errenta EB-27ko batez bestekoaren gainetik duten herrialdeen artean dago EAE; zehazki, ehuneko 14,4 puntutan gainditzen du.




Iturria. Eurostat (2025eko urria). Unitatea: Erosteko ahalmenaren parekotasunean. PPCak. EBko indizea, 100eko. oinarria

## 5. Industria-sektorearen ehunekoa BPGarekiko

| | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Euskadi** | 24,3 | 24,2 | 23,6 | 23,7 | 23,8 | 23,5 | 23,3 | 24,4 | 25,2 | 24,0 | 23,5 |
| **Espainia** | 16,0 | 16,0 | 15,7 | 15,9 | 15,7 | 15,5 | 15,9 | 16,6 | 17,4 | 16,1 | 15,6 |
| **EB-27** | 19,5 | 20,0 | 20,0 | 19,9 | 19,8 | 19,6 | 19,2 | 19,6 | 20,1 | 20,2 | 19,3 |

Azken 10 urteetan, industria-sektoreak BPGan duen ehunekoa % 24 inguruko digituetan mugitu da beti. Datu horren aldakortasuna ez dago haren dinamikaren mende soilik, beste sektore batzuen dinamismoaren mende ere badago; zerbitzuen sektorea adibidez, etengabe hedatzen ari da, azken aldi honetan sektore turistikoaren eskutik.

Nolanahi ere, industria Euskadiko BPGaren 23,5 izan zen 2024an, Europako batezbestekoa baino 4,2 puntu gehiago eta Espainiako batezbestekoa baino 8 puntu inguru gehiago.

EB-27KO KONPARAZIOA (2024)




Iturria: Ine (Eskualdeko kontabilitatea) eta Eurostat (Kontu ekonomikoak)

Konparazioa eginez, Europan, Euskadi goiburuko postuetan dago, Alemaniaren maila berean, adibidez. Europako batezbestekoaren gainetik dago, eta Espainiako batezbestekoa nabarmen gainditzen du.

Orkestrak egindako Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Lehiakortasun Txostenaren arabera, Euskadik posizio nabarmena du enpresa-eremu ekonomikoan, per capita BPGari eta produktibitate handiari esker. Era berean, enpresen errentagarritasunak sendotasuna erakusten du, hazkunde-marjinak baititumanufaktura-sektorean kostuak igotzekoarriskua badago ere. Bestalde, berrikuntzako eta ekintzailetzako emaitzek ibilbide positiboak dituzte, nahiz eta ETEen berrikuntzak Europako batezbestekoaren azpitik jarraitzen duen.

## 6. Giza Garapenaren Indize (GGI)

Giza Garapenaren Indizea (GGI) giza garapenaren funtsezko dimentsioetan lortutako batez besteko lorpenen adierazle sintetikoa da: bizitza luzea eta osasungarria izatea, ezagutzak eskuratzea eta bizi-maila duinaz gozatzea. GGI hiru dimentsioetako bakoitzaren indize normalizatuen batez besteko geometrikoa da. Garapenerako Nazio Batuen Programaren (NBGP) esparruan egiten da, eta Euskadin Eustatek egiten du, NBGPren metodologiari jarraituz.

Azken urteetan argitaratutako datuetatik abiatuta, 2015eko ekitalditik 2023ko ekitaldira arte (azken datuak eskuragarri), Euskadi beti mantendu da munduko 15 onenen artean dagoen indize batekin. Izan ere, sailkapen horretako daturik txarrena 2015. eta 2020. urteetakoa da, 13. postuan egon baitzen; daturik onena, berriz, 2019ko ekitaldikoa da, bederatzigarren postuan amaitu baitzuen. 2023an (2025ean argitaratutako datua), 12. postua bete zen, Finlandiaren koefiziente berarekin.

| 2015 | |
|---|---|
| Switzerland | 0,952 |
| Norway | 0,952 |
| Iceland | 0,948 |
| Germany | 0,941 |
| Sweden | 0,937 |
| Hong Kong, China (SAR) | 0,936 |
| Denmark | 0,936 |
| Singapore | 0,935 |
| Australia | 0,933 |
| Netherlands | 0,932 |
| New Zealand | 0,933 |
| **Euskadi** | **0,930** |
| Finland | 0,930 |
| Canada | 0,927 |
| Liechtenstein | 0,926 |
| Ireland | 0,924 |
| Belgium | 0,924 |
| United States | 0,924 |
| United Kingdom | 0,923 |
| Luxembourg | 0,914 |
| Korea (Republic of) | 0,908 |
| United Arab Emirates | 0,860 |
| **Munduko bataz bestekoa** | **0,724** |

| 2019 | |
|---|---|
| Norway | 0,961 |
| Switzerland | 0,960 |
| Iceland | 0,958 |
| Hong Kong, China (SAR) | 0,953 |
| Germany | 0,951 |
| Sweden | 0,947 |
| Denmark | 0,946 |
| Singapore | 0,945 |
| **Euskadi** | **0,943** |
| Ireland | 0,942 |
| Australia | 0,941 |
| Netherlands | 0,941 |
| Liechtenstein | 0,940 |
| Finland | 0,939 |
| New Zealand | 0,937 |
| Belgium | 0,936 |
| United Kingdom | 0,933 |
| United States | 0,933 |
| United Arab Emirates | 0,933 |
| Canada | 0,932 |
| Luxembourg | 0,925 |
| Korea (Republic of) | 0,922 |
| **Munduko bataz bestekoa** | **0,739** |

| 2020 | |
|---|---|
| Norway | 0,963 |
| Switzerland | 0,957 |
| Iceland | 0,955 |
| Hong Kong, China (SAR) | 0,955 |
| Australia | 0,948 |
| Germany | 0,948 |
| Denmark | 0,946 |
| Ireland | 0,945 |
| Sweden | 0,944 |
| Singapore | 0,942 |
| Finland | 0,939 |
| Netherlands | 0,938 |
| **Euskadi** | **0,937** |
| New Zealand | 0,935 |
| Liechtenstein | 0,933 |
| Belgium | 0,930 |
| United Arab Emirates | 0,930 |
| Canada | 0,928 |
| United States | 0,923 |
| Korea (Republic of) | 0,922 |
| Luxembourg | 0,921 |
| United Kingdom | 0,920 |
| **Munduko bataz bestekoa** | **0,736** |

| 2021 | |
|---|---|
| Switzerland | 0,965 |
| Norway | 0,964 |
| Hong Kong, China (SAR) | 0,959 |
| Iceland | 0,957 |
| Australia | 0,949 |
| Sweden | 0,949 |
| Germany | 0,948 |
| Denmark | 0,947 |
| Ireland | 0,946 |
| Singapore | 0,942 |
| **Euskadi** | **0,941** |
| Netherlands | 0,941 |
| Finland | 0,941 |
| Belgium | 0,938 |
| Liechtenstein | 0,936 |
| New Zealand | 0,936 |
| Canada | 0,934 |
| United Kingdom | 0,931 |
| United Arab Emirates | 0,931 |
| Luxembourg | 0,927 |
| Korea (Republic of) | 0,926 |
| United States | 0,921 |
| **Munduko bataz bestekoa** | **0,735** |

| 2022 | |
|---|---|
| Switzerland | 0,967 |
| Norway | 0,966 |
| Iceland | 0,959 |
| Hong Kong, China (SAR) | 0,956 |
| Denmark | 0,952 |
| Sweden | 0,952 |
| Germany | 0,950 |
| Ireland | 0,950 |
| Singapore | 0,949 |
| Australia | 0,946 |
| Netherlands | 0,946 |
| **Euskadi** | **0,943** |
| Belgium | 0,942 |
| Finland | 0,942 |
| Liechtenstein | 0,942 |
| United Kingdom | 0,940 |
| New Zealand | 0,939 |
| United Arab Emirates | 0,937 |
| Canada | 0,935 |
| Korea (Republic of) | 0,929 |
| Luxembourg | 0,927 |
| United States | 0,927 |
| **Munduko bataz bestekoa** | **0,739** |

| 2023 | |
|---|---|
| Iceland | 0,972 |
| Switzerland | 0,970 |
| Norway | 0,970 |
| Denmark | 0,962 |
| Sweden | 0,959 |
| Germany | 0,959 |
| Australia | 0,958 |
| Hong Kong, China (SAR) | 0,955 |
| Netherlands | 0,955 |
| Belgium | 0,951 |
| Ireland | 0,949 |
| **Euskadi** | **0,948** |
| Finland | 0,948 |
| Singapore | 0,946 |
| United Kingdom | 0,946 |
| United Arab Emirates | 0,940 |
| Canada | 0,939 |
| Liechtenstein | 0,938 |
| United States | 0,938 |
| New Zealand | 0,938 |
| Korea (Republic of) | 0,937 |
| Luxembourg | 0,922 |
| **Munduko bataz bestekoa** | **0,756** |

Iturria: Eustat (2025/05/27) eta Giza Garapenaren Indizea eta bere osagaiak 2025.

Termino kuantitatiboetan, Euskadik goranzko joera erakutsi du 2015etik, 2020ko ekitaldian izan ezik, orduan pandemiaren ondorioz 0,943 baliotik 0,937 baliora igaro baitzen. Atzeraldi horren ondoren, eta herrialde garatuenen joerari jarraituz, Euskadiko GGI suspertzen joan da, eta pandemia aurreko azken neurketako balio bera lortu du 2022an. 2023an, GGI orain arteko baliorik handienera iritsi zen, 0,948ra igo zen koefizientearekin

## 7. Gini indizea

Adierazle hau erreferentziazkoa da nazioartean desberdinkeria sozialak neurtzeko. Desberdinkeria soziala neurtzeko metodo bat da, eta 0ko balioak erabateko berdintasuna adierazten du, eta 100eko balioak, berriz, desberdinkeriarik handiena. 0 banaketa ekitatiboa da, eta 100, berriz, pertsona batek dena bereganatzea. Zenbat eta txikiagoa izan indizea, orduan eta berdintasun handiagoa; eta, zenbat eta handiagoa, orduan eta desberdinkeria-indize handiagoa.

Azken hamarkadan, gizarte-desberdinkeria txikiena duten Europako 8 herrialdeen artean kokatu da etengabe Euskadi. 0 eta 100 arteko indizea.

EB-27KO KONPARAZIOA (2023)




Iturria: Eustat Euskadirako eta Eurostat.

## 8. I+G+Barekiko konpromisoa

Azken hamarkadan, EAEk etengabeko hazkundea izan du baliabideetan eta I+G+Bko sistemaren emaitzetan, lankidetza publiko-pribatuan eta eragile ekonomiko guztien eta, bereziki, enpresa-sektorearen inplikazio berezian oinarrituta.

Azken datu ofizialen arabera –2024ko ekitaldikoa, inbertsioa 2.114 milioi eurora iritsi zenean –, EAEko I+Ga BPGaren % 2,15 da, eta 2013tik zifra horrek ere gutxienekora murrizten du Europako batezbestekoarekiko aldea (% 2,24). (Iturria: Eustat)




| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Euskadi (Eustat)** | 1,84 | 1,80 | 1,83 | 1,83 | 1,84 | 2,05 | 2,09 | 2,07 | 2,15 | 2,15 |
| **Euskadi (Eurostat)** | 1,95 | 1,94 | 1,94 | 2,02 | 1,99 | 2,20 | 2,32 | 2,20 | 2,35 | 2,30 |
| **Espainia (Eurostat)** | 1,21 | 1,18 | 1,20 | 1,23 | 1,24 | 1,40 | 1,40 | 1,40 | 1,49 | 1,50 |
| **EB-27 (Eurostat)** | 2,10 | 2,10 | 2,14 | 2,17 | 2,21 | 2,28 | 2,24 | 2,22 | 2,26 | 2,24 |

Iturria. Eustat eta Eurostat. Eurostatek Euskadiri buruz emandako 2024ko datua gutxi gorabeherakoa da.

Eusko Jaurlaritzak Berrikuntza Itsasargiak abiarazi ditu, Euskadi abangoardia zientifiko eta sozialeko Europako polo gisa sendotzeko. Estrategiak, hiru trantsizio handiekin lerrokatuta (digitala, energetikoa eta soziala), datozen urteetan berrikuntza-politikaren norabidea markatuko duten bederatzi Berrikuntza Itsasargi ezartzen ditu.

Lehen trantsizioan (Trantsizio Digitalean eta Teknologikoan), hiru itsasargi nagusi identifikatzen dira: Adimen Artifiziala (AA), lehentasun estrategikotzat jotzen baita osasun-arloko diagnostikoetarako ezagutza aurreratua eta funtsezkoa sortzeko, prozesu energetikoak optimizatzeko eta euskara sustatzeko; Teknologia Kuantikoak, konputazioan, komunikazioetan, zibersegurtasunean eta sentsorikan inpaktu garrantzitsuak dituen disrupzio teknologiko gisa errekonozitzen baitira; eta Zibersegurtasuna, zeharkako baldintza baita, helburu duena digitalizazio perbasibo eta erresilientea bermatzea, erasoei aurre egiteko, detektatzeko eta berreskuratzeko zeharkako esparru transbertsal baten bidez, datuaren bizi ziklo osoan.

Bigarren trantsizioan (Energia eta Ingurumen Trantsizioan), hiru itsasargieak honako hauek dituzte ardatz: deskarbonizazioaardatz nagusi bat denada erregai fosilekiko mendekotasuna murrizteko, efizientzia

energetikoaren bidez, erregai berriztagarrien (hala nola hidrogeno berdearen) garapenaren bidez, CO2 gasa atzitzeko, erabiltzeko eta biltegiratzeko soluzioen bidez eta baterien hobekuntzaren bidez; One Health ikuspegia, pertsonen, animalien eta ekosistemen osasuna integratzen duena osasun- eta ingurumen-erronkei heltzeko; eta elikadura osasungarria eta jasangarria, kutsatzailerik gabeko elikagai seguru eta osasungarriak bermatzen dituena, ekoizpenean jasangarritasuna, biodibertsitatea eta zirkulartasuna sustatuta.

Azkenik, hirugarren trantsizioak (Trantsizio Soziodemografikoak eta Sanitarioak) ere, hiru itsasargi jasotzen ditu: osasun pertsonalizatua eta doitasunezkoa, erikortasun eta hilkortasun handieneko eremuetatik (hala nola onkologiatik, gaixotasun kardiobaskularretatik, osasun mentaletik eta gaixotasun neurodegeneratibo eta arraroetatik) eratorritako erronkei erantzuten diena, baita lehen mailako arretaren hobekuntzarekin, medikuntza prebentiboarekin eta osasun publikoarekin lotutako erronkei ere; osasunaren baldintzatzaile sozialak, faktore sozialak (hala nola hezkuntza-maila, diru-sarrerak, gizarte-laguntza edo etxebizitza) aztertzen dituztenak (horiek osasunean eragina dute, eta saihesteko moduko desberdintasunak sortzen dituzte osasun-egoeran); eta demografia eta erronka soziosanitarioa, dinamika demografikoak eta migrazio-dinamikak, zahartze osasungarria, iraupen luzeko zainketen kudeaketaren arloko berrikuntza eta belaunaldien arteko elkartasuna aztertzen dituena.

## 9. Genero Berdintasunaren Indizea

Adierazle horrek sei dimentsiotan neurtzen ditu gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak Europar Batasuneko estatuetan: enplegua, ezagutza, denbora, dirua, boterea eta osasuna.

Euskadi beti egon da EIGEk (Genero Berdintasunerako Europako Institutua) egiten duen rankingean emaitza onenak izan dituzten Europako 10 herrialdeen artean. Eskuragarri dauden azken datuen arabera (2023ko ekitaldia), EAE zortzigarren postuan dago Batasuneko 27 herrialdeen artean, eta beti egon da bertako batezbestekoaren gainetik.

EAEk 100 puntutik 74,5 puntu ditu. Aurreko neurketan bezala, EB-27ko batez bestekoa baino puntuazio hobea lortu du aztertutako dimentsio guztietan. Gainera, Euskadin, baliorik altuenak Osasuna, Dirua eta Denbora dimentsioetan lortu dira; eta baxuena, berriz, Boterea dimentsioan. EAEko GBIaren bilakaera positiboa da; izan ere, 68,8 puntu lortu zituen 2012an, 69,1 puntu 2014an, 69,3 puntu 2017an, 71,1 puntu 2019an, 73,1 puntu 2021ean eta 74,5 puntu 2023an (beraz, aldi horretan metatutako igoera 5,7 puntukoa izan da, 1,4koa azken biurtekoan).

Gainera, genero-berdintasunaren adierazleak hobetu egin dira arlo guztietan, bereziki Boterean (+8,8 puntu) eta Ezagutzan (+6,5). Boterea dimentsioak 63,1eko puntuazioa lortu du, eta botere politikoaren azpidimentsioa nabarmentzen da; izan ere, 8,5 puntuko igoera izan du, eta 90,2ra iritsida. Denbora eremuari dagokionez, 78,3 puntura igo da, 2010ean baino 4,9 puntu gehiago. Bilakaera hori zainketekin lotutako jardueren hobekuntzari zor zaio nagusiki, 2012an 88,7 puntu izatetik 2023an 93 puntu izatera igaro baita (EAEko memoria sozioekonomikoa 2024). Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea.)

| | 2012 | 2014 | 2017 | 2019 | 2021 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Euskadi** | 68,8 | 69,1 | 69,3 | 71,1 | 73,1 | 74,5 |
| **Espaini** | 66,4 | 67,4 | 68,3 | 70,1 | 73,7 | 76,4 |
| **EB-27** | 63,8 | 65,0 | 66,2 | 67,4 | 68,0 | 71,0 |

Iturria: Eustat eta EIGE (Genero Berdintasunerako Europako Institutua)

Eskuragarri dauden azken datuen arabera (2023ko ekitaldia), EAE zortzigarren postuan jarri da Europar Batasuneko 27 herrialdeen artean.

GENERO BERDINTASUNAREN INDIZEA. EB-27KO KONPARAZIOA. (2023)




Iturriak: Eustat eta Europako Genero Berdintasunerako Institutua

Helburua da genero-desberdinkeriaren aurkako borrokaren emaitzak hobetzen jarraitzea, Euskadik duen posizioari eutsi edo hobetu ahal, inguruko gainerako gizarteekin alderatuta.

Soldata-arrakalari buruzko atalean etengabeko hobekuntza-prozesu bat ikusten da, baina oraindik ez da nahikoa soldata-arrakala zerora murriztea lortzeko. Gaur egun, lanordu arrunteko irabaziari lotutako batez besteko soldata-arrakala % 3,73 da gizonen alde, eta, dirutan, euro bat baino gutxiago, 2023ko ekitaldiko datuaren arabera.

| Adierazlea | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2016az geroztiko aldea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Soldata-arraila, lanordu arrunteko ( %) | 16,68 | 14,73 | 13,54 | 10,51 | 9,11 | 7,86 | 9,64 | 3,76 | -12,92 |
| Emakumeen eta gizonen arteko aldea (€) | 2,77 | 2,51 | 2,38 | 1,94 | 1,73 | 1,54 | 1,91 | 0,81 | -1,96 |
| Gizonen lanordu arrunteko irabazia (€) | 19,37 | 19,55 | 19,95 | 20,40 | 20,72 | 21,12 | 21,72 | 22,36 | 2,99 |
| Emakumeen lanordu arrunteko irabazia (€) | 16,60 | 17,04 | 17,57 | 18,46 | 18,99 | 19,58 | 19,81 | 21,55 | 4,95 |

Iturria: Ine. Soldaten egiturari buruzko urteko inkesta. Lanordu arrunteko irabazia.

## 10. Berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak murriztea

Berotegi-efektuko gasen eta aireko kutsatzaileen emisio-mailak pixkanaka hobetzen ari dira. Horrela, 2023ko ekitaldian, EB-27ko datuaren azpitik egon zen BEGen emisioa. Baina emaitza horiek hobetu egin behar dute EAEn klima-neutraltasunaren helburua lortzeko, beranduenez 2050ean, eta lurraldearen klima-aldaketarekiko erresilientzia handitu behar da, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legean ezartzen den bezala. Helburuen artean, nabarmentzekoa da isurketak % 45 murriztu direla 2005eko ekitaldiarekin alderatuta. Bidean gaude: 2023. urteari dagokion azken datuaren arabera, murrizketa % 36,6koa izan zen 2005eko datuaren aldean, eta beheranzko joera areagotu zuen.

| | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskadi | 73,7 | 73,8 | 76,3 | 73,4 | 77,3 | 74,8 | 72,9 | 64,5 | 69,0 | 71,5 | 63,4 |
| Espainia | 73,2 | 73,4 | 76,1 | 73,4 | 76,3 | 75,1 | 70,8 | 61,8 | 65,9 | 67,0 | 61,9 |
| EB-27 | 85,9 | 82,8 | 83,9 | 83,8 | 84,3 | 82,5 | 78,9 | 72,5 | 76,2 | 74,3 | 68,3 |

Iturria: Eurostat eta Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila.

Aipatutako legearen beste helburu bat da energia berriztagarrien parte-hartzea handitzea azken energia-kontsumoan. 2030ean gutxienez % 32koa izan behar duela ezartzen da. Kasu honetan joera aldekoa da, baina helburua lortzeko lanari eutsi behar zaio, are gehiago kontuan hartzen bada gure inguruko herrialdeek baino ratio txikiagoak ditugula.

| | 2012 | 2013 | 2014 | 201 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskadi | 13,9 | 15,3 | 16,0 | 14,5 | 15,7 | 14,4 | 17,8 | 17,8 | 19,8 | 20,2 | 18,2 | 20,4 |
| Espainia | 14,2 | 15,1 | 15,9 | 16,2 | 17,0 | 17,1 | 17,0 | 17,9 | 21,2 | 20,6 | 21,9 | 24,9 |
| EB-27 | 16,0 | 16,7 | 17,4 | 17,8 | 18,0 | 18,4 | 19,1 | 19,9 | 22,0 | 21,9 | 23,1 | 24,6 |

Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (Euskadi), Eurostat (Espainia eta Europa)
Guztizko energia-kontsumoaren gaineko ehunekoa



# 6

# ESKUMEN-ESPARRUA



# 6. ESKUMEN-ESPARRUA:

## 6.1. Transferentzien Batzorde Mistoa (TBM)

- 2024ko abenduaren 16ko Transferentzien Batzorde Mistoan, itsasertzaren antolamenduaren eta kudeaketaren eta zinematografiaren eta ikus-entzunezkoen arloko transferentzien eskualdaketak itxi ziren. Eskualdaketa horiek dekretu bidez gauzatu dira formalki:
    - 490/2024 DEKRETUA, abenduaren 23koa, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia, itsasbazterra antolatzearen eta kudeatzearen arloko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa
    - 491/2024 Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia, irailaren 26ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazioaren eginkizunei beste batzuk gehitzeko, gai hauetan: kultura-arloko fundazioak eta -elkarteak, liburuak eta liburutegiak, zinematografia, musika eta antzerkia, gazteria eta sustapen soziokulturala, ondare historiko-artistikoa eta kirolak
- 2025eko maiatzaren 30eko Transferentzien Batzorde Mistoan itxi egin ziren honako arlo hauetako transferentzien eskualdaketak: Meteorologia, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren ikuskapen-funtzio publikoa eta Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarrek norberaren edo besteren kontura lan egiteko hasierako baimenei buruzko eginkizunak eta zerbitzuak. Eskualdaketak ondorengo bitartekoen bidez gauzatu ziren:
    - Indarrean jarri da Transferentzien Batzorde Mistoak meteorologiari buruz hartutako akordioa. (2025/05/31) Transferentzien Batzorde Mistoak «Meteorologia eta klimatologiaren arloan Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko eskumenak mugatzeko eta lankidetza-harremanak ezartzeko akordioa» formalizatu zuen. Une horretatik aurrera, Euskalmetek denbora errealean eskuratu ahal izango ditu Estatuko agentziaren azpiegitura meteorologikoen datu guztiak, bai eta Estatuko eta nazioarteko abisu eta datu meteorologiko guztiak ere.
    - 127/2025 Dekretua, ekainaren 17koa, ontzat ematekoa Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren Erabakia, ekainaren 24ko 895/2011 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazioaren eginkizunei beste batzuk gehitzekoa, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak betetzen dituen ikuskaritzako funtzio publikoaren arloan. (TBM, 2025/05/30).
    - 128/2025 Dekretua, ekainaren 17koa, ontzat ematekoa Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarrek norberaren edo besteren kontura lan egiteko hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak. (TBM, 2025/05/30)
- 2026ko urtarrilaren 16ko Transferentzien Batzorde Mistoan honako eskumen hauek eskualdatu dira: (1) langabezia-babesa (maila kontributiboa eta asistentziala), (2) familia-prestazio ez-kontributiboak eta adingabe ez-kontributiboen jaiotza eta zaintzagatiko subsidioa, (3) Eskola Asegurua, (4) Itsas Salbamendua eta (5) laneko segurtasun eta osasunaren arloko hedapena, Barakaldoko Makineria Egiaztatzeko Zentro Nazionala (CMVM) eskualdatuta.

## 6.2 . Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa

- 2024ko azaroaren 13ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan 16 erabaki hartu ziren, aho batez, lau eremu nagusitan: Ekonomia Itunaren aldaketa, EAEko autogobernu ekonomiko-finantzarioa handitzeko; EAEko erakundeek nazioarteko organismo eta foro fiskaletan parte hartzea; Kupoa zehaztea eta 2022ko eta 2023ko behin betiko eta 2024ko behin-behineko enplegu-politika aktiboakbaloratzea; eta EAEk osasunarekin eta sexu-delituen biktimekin lotutako jarduketetarako ezohiko zenbait zuzkiduraren % 6,24ko partaidetza izatea.

- 2024ko abenduaren 23ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan, Ekonomia Ituna aldatu da, Euskadiren autogobernu ekonomiko-finantzarioa handitzeko, hiru zerga berri itunduz:

    - Zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga.

    - Finantza-erakunde jakin batzuen interesen eta komisioen marjinaren gaineko zerga

    - Zega Osagarria, talde multinazionalentzako eta tamaina handiko talde nazionalentzako gutxieneko ezarpen-maila globala bermatzeko (Bigarren Zutabea zuzentaraua).

Gainera, besteak beste, 2024-2027 aldirako aurrekontu-egonkortasunaren bidea adostu zen: defizita eta zor publikoa, foru-aldundientzako defizit-helburu propio batzuk modu iraunkorrean txertatuz, bai eta EAEk aparteko funts jakin batzuetan parte hartzea ere.

- 2025eko otsailaren 17ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak Ekonomia Ituna aldatzea erabaki du, Euskadiren autogobernu ekonomiko-finantzarioa handitzeko. Ildo horretan, adostu da zergak foru-ogasunei ordaintzen dizkieten eta inportazioak egiten dituzten zergadunek aduanetan ez aurreratu behar izatea jarduera horrengatik balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZ) ordainketa.

- 2025eko apirilaren 10eko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak aho batez hartu zituen lau erabaki. Horrekin, aurrera egin da, alde batetik, 2024ko abenduaren 23an egindako Batzorde Mistoan hartutako konpromisoak betetzeko bidean, nazioarteko eremuan foru-ogasunen agerikotasuna eta presentzia zabaltzeari eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistema finantzatzeari dagokionez. Bestalde, akordioak lortu dira Euskadiren zorpetze-mugak malgutzeko, nazioarteko egoera ekonomikoaren aurrean, eta neutraltasuna bermatzeko Estatuak araubide erkideko autonomia-erkidegoen zorraren zati bat bere gain hartzeko prozesuaren kupoaren kalkuluan.

## 6.3. Euskadiren eta Estatuaren arteko Aldebiko Lankidetza Batzorde Iraunkorra

- Euskadiren eta Estatuaren arteko Aldebiko Lankidetza Batzorde Iraunkorra egin da, lehendakaria eta Espainiako Gobernuko presidentea buru direla. (2024/11/27)

- Euskadiren eta Estatuaren arteko Aldebiko Lankidetza Batzorde Iraunkorrak, Lehendakaria eta Espainiako Gobernuko presidentea bertan zirela, honako gai hauek jorratu zituen: egiteke zeuden transferentziak, euskararen ofizialtasuna Europan, makroeskualde atlantikoa, euskal industriaren gaitasun elektrikoa eta migrazioa. (2025/07/15)

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak 10 dokumentu eman zizkion Estatuko Gobernuari, Gernikako Estatutuan egiteke zeuden transferentziak ixteko proposamen zehatzekin. (2025/10/08)

| **Transferitzeke dauden eskumenak** | | **2025** |
|---|---|---|
| **1. multzoa. Gizarte Segurantza.** | 1. proposamena, honako hauek biltzen dituena:<br>-Mutualitate laguntzaileak eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetza<br>-GSIN/Itsasoko Gizarte Institutuaren kotizaziopeko prestazioak<br>-Soldatak Bermatzeko Funtsa<br>-Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa | Prozesuan |
| **2. multzoa. Azpiegiturak** | 2. proposamena: Interes orokorreko portuak | Prozesuan |
| | 3. proposamena: Turismoko paradoreak | Prozesuan |
| **3. multzoa. Segurtasun publikoa** | 4. proposamena: Ibilgailuen trafikoa eta zirkulazioa | Prozesuan |
| | 5. proposamena: Udal-hauteskundeen araubidea | Prozesuan |
| **4. multzoa. Ogasuna, Finantzak eta Enpresa** | 6. proposamena: Kreditu ofiziala eta bankuak | Prozesuan |
| | 7. proposamena: Aseguru pribatuak | Prozesuan |
| | 8. proposamena: Nekazaritzako aseguruak | Prozesuan |
| | 9. proposamena: Herri Lanen Azterlan eta Esperimentazio Zentroa (CEDEX). Ikerketan, garapen zientifiko eta teknikoan eta berrikuntzan transferentzia zabaltzea. | Prozesuan |
| | 10. proposamena: ETE industrialei zuzendutako sustapena, laguntza eta finantzaketa. Transferentzia handitzea | Prozesuan |

# 7

# LEHENDAKARIAREN HARREMANAK ERAGILE POLITIKO, EKONOMIKO ETA SOZIALEKIN



# 7. LEHENDAKARIAREN HARREMANAK ERAGILE POLITIKO, EKONOMIKO ETA SOZIALEKIN

- Lehendakaria Sareen Sareko arduradunekin bildu da (2025/01/14)
- Imanol Pradales lehendakaria Talgoko presidentearekin bildu da (2025/01/30)
- Lehendakaria Efe agentziako presidentearekin bildu da (2025/02/04)
- Lehendakariak harrera egin die Elkargiko ordezkariei (2025/03/04)
- Lehendakaria Confebaskeko batzorde betearazlearekin elkartu da (2025/04/01)
- Lehendakaria ELA eta LAB sindikatuekin bildu da (2025/04/02)
- Lehendakaria ComisionesObreras-CCOO sindikatuarekin bildu da (2025/04/03)
- Bilera EH-Bilduko ordezkariekin (2025/04/14)
- Bilera Sumar alderdiko ordezkariekin (2025/04/14)
- Bilera Alderdi Popularreko ordezkariekin (2025/04/14)
- Bilera Euskadiko -Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerrako ordezkariekin (2025/04/14)
- Bilera Eusko Alderdi Jeltzaleko ordezkariekin (2025/04/14)
- Lehendakaria Tubacex enpresako ordezkariekin bildu da (2025/05/05)
- Lehendakariak Ikastolen Elkarteko ordezkariei harrera egin die (2025/05/20)
- Lehendakariak Innobasqueren ordezkariak hartu ditu (2025/05/27)
- Lehendakariak Kutxabankeko presidenteari harrera egin dio (2025/06/09)
- Lehendakaria Guggenheim Bilbao Museoaren Patronatuaren bilerako buru izan da (2025/06/10)
- Lehendakariak BBVAko ordezkariak hartu ditu (2025/06/25)
- Bilera Podemos Euskadiko koordinatzaile nagusiarekin (2025/07/01)
- Lehendakariak HiTZ bisitatu du, Hizkuntzaren Teknologiaren Euskal Zentroa (2025/07/02)
- Lehendakariak NBE-Habitateko zuzendari exekutiboari harrera egin dio (2025/07/07)
- Bilera Eusko Ikaskuntzako presidentearekin (2025/07/10)
- Lehendakariak Espainiako Bankuko gobernadoreari harrera egin dio (2025/07/10)
- Lehendakariak ASLEko ordezkariak hartu ditu (2025/07/10)
- Lehendakariak eta "la Caixa" Fundazioko presidenteakGizarte Ekintzaren arloko akordioa sinatu dute (2025/07/10)
- Bilera Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko ordezkariekin (2025/07/17)

- Harrera Portugaleteko Nazioarteko Folklore Jaialdiko ordezkariei (2025/07/24)
- Bilera Alderdi Popularreko ordezkariekin (2025/09/05)
- Batzarrak alderdi politikoekin: Sumar 2025/09/05)
- Eusko Jaurlaritzaren eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionaleko zuzendaritza berriaren arteko topaketa (2025/09/08)
- Batzarrak alderdi politikoekin: PSE-EE (2025/09/08)
- Batzarrak alderdi politikoekin: EH Bildu (2025/09/09)
- Batzarrak alderdi politikoekin: EAJ-PNV (2025/09/09)
- Harrera Terrorismoaren Biktimen Elkarteko (AVT) arduradunei (2025/09/14)
- Lehendakariak Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusiari harrera egin dio (2025/10/28)
- Bilera Ijito Herriaren Euskal Kontseiluarekin (2025/11/11)
- Lehendakariak Iberdrolako presidentea hartu du (2025/11/13)
- Harrera Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuko arduradunei (2025/11/24)
- Imanol Pradales lehendakaria Baionako Merkataritza eta Industria Ganberako ordezkariekin bildu da (2025/12/01)

# 8

# AURREKONTU-MUGARRIAK. 2025eko EKITALDIA


2025

## 8. AURREKONTU-MUGARRIAK. 2025eko EKITALDIA.

- 2025eko Aurrekontuen Gidalerroak onartu dira: Gobernu Kontseiluaren 2024ko uztailaren 9ko Erabakia. EAEko ekonomiaren hazkunde-aurreikuspena % 1,9koa izango da 2024rako, eta % 2,1ekoa 2025erako. Lan-merkatuari dagokionez, 2025ean 16.000 enplegu inguru sortuko dira, eta langabezia-tasa % 6,8ra jaitsiko da.

- 2024ko urriaren 29ko Gobernu Kontseiluan Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren Proiektua onartu da. Proiektu hori 15.728 M/€-koa da, hau da, aurrekontu orokorra 70 M/€-tan handitu da eta iaz baino % 4,7 handiagoa da.

- Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onestendituen abenduaren 20ko 8/2024 Legea onartu da.

- 5/2025 Legea, maiatzaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen Legea aldatzekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraldaketa ekonomikoari lotutako inbertsioak finantzatzeko 1.000 M€-ko zorpetze gehigarria ahalbidetzeko.

- 2026ko aurrekontuaren gidalerroak finkatu dira, arreta gizarte-ongizatean, hazkunde jasangarrian eta finantza-egonkortasunean jarrita. 2026an % 1,8ko hazkundea proiektatzen da, 12.000 lanpostu sortzea aurreikusten da eta jasangarritasunaren, eraldaketa digitalaren eta berdintasunaren aldeko apustua indartzen da. (2025/06/10)

- 2025eko urriaren 28ko Gobernu Kontseiluan Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren Proiektua onartu da. Proiektu hori 16.378 M/€-koa da, hau da, aurrekontu globala 650 M/€ handitu da eta iaz baino % 4,1 handiagoa da.

- 7/2025 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorrak onesten dituena.

# 9

# BESTE JARDUKETA NABARMEN BATZUK



# 9. 2025EKO EKITALDIKO BESTE JARDUKETA NABARMEN BATZUK

## 9.1. Lehen hiruhilekoa

- Euskotrenek kudeatzen duen Gasteizko tranbia-zerbitzuan adingabeentzako doakotasuna (12 urte bete arte) indarrean sartu da. (2025/01/07)

- Inklusiorako Euskal Kontseilua eratu da. Organo aholku-emailea da, eta diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko gaietan parte hartzen du. Bertan, erakunde publikoak, eragile sozioekonomikoak, elkargo profesionalak eta hirugarren sektore soziala daude ordezkatuta. (2025/01/10)

- Lehendakariaren bidaia Bruselara. Bertan, Europako maila goreneko hainbat politikorekin egin zituen bilerak, Europako hiriburuan euskal agendari eragiten dioten gaiak defendatzeko (2025/01/28-29)

- Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak erabaki du Ekonomia Ituna aldatzea, inportazioak egiten dituzten EAEko zergadunek aduanetan BEZaren ordainketa aurreratu behar izan ez dezaten. (2025/02/06)

- Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako laguntza-programa genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat. Aurrekontua: 1,6 milioi euro (2025/02/11)

- Otsailaren 11ko 35/2025 Dekretua onartu da, Gasteizko Mendi Garaiak Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duen Dekretua aldatzen duena, eremu hori handitzeko, Gasteizko Mendiak/Montes de Vitoria Kontserbazio Bereziko Eremu izendapena emanez eta kontserbazio-neurriak eguneratuz.

- 37/2025 Dekretua, otsailaren 11koa, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko erregelamendua onartzen duen Dekretua.

- Doako Laguntza Juridikoaren Programa: Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko bakoitzeko abokatuen eta prokuradoreen elkargoentzako finantzaketa, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legeak agintzen dizkien abokatu-laguntzako eta defentsako eta ordezkaritzako nahitaezko zerbitzuak emateagatik (guardiako txanda, ofiziozko txanda eta funtzionamendu-gastuak). (18.000.000.- €) (2025/02/12)

- Baionako mugaz gaindiko topaketa, lankidetzarako erronkak eta aukerak aztertzeko. Eusko Jaurlaritzak indartu egin du bere konpromisoa, lurralde-kohesioa indartzeko eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko. (2025/02/12)

- Lehendakaria buru duen Industria Defentsarako Taldea eratu da, erronka globalei aurre egiteko eta nazioarteko aldaketei aurrea hartzeko. (2025/02/12)

- Hasierako akordioa,Sidenor buru duen euskal partzuergoak Trilantic funtsari Talgoren % 29,7 erosteko, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin (Finkatuz funtsaren bidez) eta Caja Vital Kutxa eta Bilbao Bizkaia Kutxa fundazioen laguntzarekin. (2025/02/14)

- 45/2025 Dekretua, otsailaren 18koa, hirigintzako estandarrak arautzekoa gizarte- eta ingurumen-eskakizun berrietara egokitzeko eta lurralde-garapen jasangarriagoa, irisgarriagoa eta inklusiboagoa bermatuko duen hirigintza-malgutasun handiagoa emateko.

- “Euskadi Bonu Jasangarriaren” IX. jaulkipena, 700m €-koa, zortzi aldiz handiagoa den eskariarekin. (2025/02/19)

- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Euskorpus proiektuak AAren iraultzara eramango du euskara, eta, horrela, euskararen etorkizuna bermatuko du gizarte gero eta digitalago batean. (2025/02/20)

- 50/2025 Dekretua, otsailaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena.

- Emakundek Gizonduz 2030 Estrategia aurkeztu du Gobernu Kontseiluan, gizonak berdintasunaren alde sentsibilizatzeko (2025/02/25)

- 48/2025 Dekretua, otsailaren 25ekoa, Uraren Kanonaren Erregelamendua aldatzen duena.

- Osasunaren Euskal Ituna: 24 ildo estrategikoak adostu dira eta dagozkien lantaldeak osatu dira. (2025/02/26)

- Euskadiko Parke Teknologikoa Illunbera zabaldu da Donostiako Udalaren eskutik, eta enpresa-proiektu estrategikoak egin ditzake, hala nola Columbus Venture Partners buru duena. (2025/02/28)

- Euskal Finantza Aliantza bultzatu da, lankidetza publiko-pribatutik EAEko eraldaketa ekonomiko eta industrialerako 4.000 milioi mobilizatzeko. (2025/03/03)

- Kontziliaziorako laguntza-programa. 2025eko deialdia (25.100.000 €) (2025/03/11)

- 60/2025 Dekretua, martxoaren 11koa, aldez aurretiko fiskalizazioa behar duten espedienteei dagozkien gastu mota bakoitzeko zenbatekoak finkatzen dituena.

- Lehendakariaren bidaia Estatu Batuetara (2025/03/9-14)

- Ertzaintzaren 2025-2028 Akordio Arautzailea, etorkizuneko Ertzaintzaren oinarriak ezartzeko balio behar duena, herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetzeko eta modernizatzeko. (2025/03/14)

- Bilboko Santa Marina Ospitaleko zainketa aringarrien solairu berria, osasun-laguntzaren humanizazioan aurrera egiteko konpromisoari erantzuteko, eta pazienteen premia fisikoei ez ezik, emozionalei eta sozialei ere erreparatzeko. (2025/03/24)

- Akitania Berria/Euskadi/Nafarroa Euroeskualdea: urteko batzarra. Estaturik gabeko nazioek Europan duten zeregina aldarrikatu da, eta Makroeskualde Atlantikoari behin betiko bultzada emateko eskatu da. (2025/03/25)

- Euskadiko 2030 Agenda Foroak Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren 2025-2028 Plana onartu du. Plan horrek datozen urteetan ekintza publikoa gidatuko du, gizarte-erronkei ikuspegi eraldatzaile eta parte-hartzaile batetik heltzeko. (2025/03/26)

- Debabarreneko Eskualdeko Plan Estrategikoa, eskualdea Euskadiko garapen iraunkorraren eta berrikuntzaren erreferente bihurtzea bilatzen duena, udalerrien hazkunde orekatua sustatuz eta biztanleen bizi-kalitatea hobetuz. Gutxi gorabeherako inbertsioa: 130M €. (2025/03/26)

- Euskadi, 2030CATALYSTS programarekin Garapen Jasangarrirako Helburuak gidatzeko hautatutako Europako 20 eskualdeetako bat. Ekimen horrek trantsizio justu, inklusibo eta erresilientearekin konprometituta dauden Europako eskualdeen arteko lankidetza sustatzen du. (2025/03/27)

## 9.2. Bigarren hiruhilekoa

- Donostiako Portuko Udal Kontseilua eratu da. Horrekin, EAEko kostaldeko herri guztiek badituzte jada portuen arloko aholkularitza-, kontsulta- eta eztabaida-organoak. (2025/04/02)

- EAEko nekazaritzaren sektorerako Belaunaldi Erreleborako Estrategia Integrala. Estrategia horren helburua da landa-ingurunearen jasangarritasunerako funtsezkoa den sektoreari jarraipena ematea, gazte gehiago sartuz, eta lurralde-oreka lortzea. (2025/04/04)

- Onartu egin da Barakaldo bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu izendatzea, eta Errenteria, Zumaia eta Lasarte-Oriaren atzetik izendapen hori jasotzen duen Bizkaiko lehen udalerria eta Euskadiko laugarrena izango da. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. (2025/04/07)

- Gizartearen ongizate integralerako jarduera fisikoa sustatzeko Mugiment 2025-2030 Ekintza Plana aurkeztu da (2025-04-08)

- milioi euroko zuzkidura gehigarria Finantzen Euskal Institutuari, EAEko Finantza Aliantzaren esparruan (2025/04/08).

- Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak lau erabaki hartu ditu, batetik, foru-ogasunek nazioartean duten presentzia eta agerikotasuna indartzeari buruz, eta, bestetik, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren finantzaketari buruz, bai eta egungo nazioarteko egoera ekonomikoaren aurrean Euskadiren zorpetze-mugak malgutzeari buruz eta araubide erkideko autonomia-erkidegoen zorraren zati bat Estatuak bere gain hartzeko prozesuaren kupoaren kalkuluaren gaineko neutraltasuna bermatzeari buruz ere. (2025/04/10)

- Deskarbonizazio industrialerako dirulaguntzen programa. 2025eko deialdia (22.000.000.- €) (2025/04/15)

- 89/2025 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskadiko Merkatari Elkarteen Errolda arautzen duena (2025-04-15). EHAA

- 2021-2024 aldirako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Planaren azken txostena aurkeztu da: BEGen isuriak % 33 murriztu dira 2005. urtearekin alderatuta, eta planaren % 30eko helburua gainditu da. BPGa urtean batez beste 160 M€ igo da, eta urtean 2.000 enplegu baino gehiago sortu dira. (2025/04/17)

- Euskadiko merkataritza-jarduerarekin lotutako merkataritza-establezimenduak eta zerbitzuak modernizatzeko laguntzak. 2025eko deialdia. (4.600.000.- €) (2025/04/29)

- Unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren arloko akordioa gehiengo sindikalarekin. Euskal eskola publikoa eraldatzen duen akordiotzat jotzen da. Irakasleentzako eta ikastetxeentzako baliabideak nabarmen handitzea dakar, ikasleen emaitza akademikoak hobetzeko behar diren laguntza eta tresnak izan ditzaten. (2025/05/10)

- 2025-2027 aldirako Etxebizitzaren Gida Plana onartu eta abian jarri da (2025/05/27)

- Zesta Puntako Nazioarteko Txapelketa, ekainaren 1etik 6ra, Gernikan, Euskal Selekzioaren debut ofizialean. (2025/05/29)

- Martxan jarri da Arabako Lautada Miranda de Ebro eta Altsasu artean zeharkatuko duen trenbide-zerbitzu berria. Egungo trenbide-trazaduratik igaroko da, eta 137 zirkulazio izango ditu astean, Manzanosen, Argantzunen, Iruña Okan, Vitoria-Gasteizen, Alegría-Dulantzin, Agurainen eta Araian. (2025/05/30)

- Euskadik Ahots Batuak 18. GJHa sustatzen du: kultura- eta hizkuntza-aniztasuna babesteko aliantza globala. 2030 Agenda osatu nahi du, hizkuntzek eta kulturek gizarte-kohesioan eta giza garapenean duten funtsezko zereginaren aitortzarik eza estaltzeko. (2025/06/02)

- Ikerketa-taldeentzako laguntzen edizio berria: aurrekontuaren % 20 handitu da, eta, horri esker, ezagutzaren arlo guztietan 250 proiektu finantzatu ahal izango dira. 2025eko deialdia (2025/06/02)

- Osakidetzak egokitze-erradioterapia txertatu du, abangoardiako teknologia minbiziaren tratamendu pertsonalizatuan. (2025/06/02)

- Espainiako Gobernuarekin Euskadin hornidura bermatzeko energia- eta industria-kupo bat ituntzeko proposamena aurkeztu da. (2025/06/04)

- Finkatuzek 35 milioi euro inbertituditu Innometal eta Ohmnia Electronics industria-taldeetan, industria elektromekanikoan errotzea, ondorengotza eta sendotzea bultzatzeko. (2025/06/05)

- "Jauzia gara'" aurkeztu da Euskararen Erabilera Sustatzeko Kongresuan, datozen hamarkadetan euskara biziberritzeari begira adostasun zabala lortzeko bide berria. (2025/06/09)
- EAEko Kontsumoko Arbitraje Batzordearen hitzarmena berritu da, lehentasunezko erakunde gisa gaitzen duena kontsumo-gatazkak judizioz kanpo ebazteko. (2025-06-10).
- Akordioa, Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetza Batzordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriari buruzkoa. (2025/06/10)
- Akordioa Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioarekin, unibertsitate-irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko. (2025/06/10)
- Euskadik eta Australiak loturak estutu dituzte industriaren eta energiaren arloan. Aldebiko lankidetza-aukerak aztertu dira funtsezko sektoreetan, hala nola energia berriztagarrietan, hidrogenoaren balio-katean, deskarbonizazio-teknologietan, industria aurreratuan eta lehengai kritikoen garapen jasangarrian. (2025/06/12)
- Estatuarekiko lankidetza indartu da legez kanpoko erabilera turistikoko etxebizitzen kontrolean, eta Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Batzordea gatazkak ebazteko lehentasunezko erakunde gisa gaitzeko hitzarmena sinatu da. (2025/06/12)
- 131/2025 Dekretua, ekainaren 17koa, segurtasun industrialaren arloko profesionalen kualifikazioarena.
- Eusko Jaurlaritzak Europar Batasunaren aurrean defendatzen du eskualdeek funtsezko zeregina dutela automobilgintzaren sektorea eraldatzeko. (2025/06/18)
- 121/2025 Dekretua, ekainaren 3koa. Honen bidez ezartzen dira, Dantza ikasketa profesionaletako curriculuma eta ikasketa horietan sartzeko. (2025/06/18)
- 134/2025 Dekretua, ekainaren 24koa, Onkologikoa osasun-zentroa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoan titulartasun publikoko baliabide gisa integratzekoa. (2025/06/24)
- Lehentasunez erosteko eskubidea baliatzen da Arrasateko babes publikoko etxebizitzaren bizitegi-eraikinean. Titulartasun pribatuko 148 etxebizitza babestu erosi dira, eta Euskadiko alokairuko etxebizitzen parke publikoan sartuko dira. Eragiketa horretan sartzen dira, halaber, 148 garaje eta 148 trasteleku etxebizitzei lotuta, baita 18 garaje libre eta merkataritza-lokal bat ere. (2025/06/24)
- Osasun Itunaren hirugarren fasea amaitu da, 24 ildo estrategikoetan babes zabala lortuta. (2025/06/26)

## 9.3. Hirugarren hiruhilekoa

- 138/2025 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Merkasaretza Merkataritza Laguntzako Puntuen Euskal Sarea sortu eta Merkataritza Laguntzako Zerbitzuen Zorroa zehazten duena.
- Euskadik bere gain hartu du, 2025eko bigarren seihilekoan, kirol-arloaren koordinazioa Europar Batasuneko Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kiroleko Ministroen Kontseiluan. (2025/07/01)
- 139/2025 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Euskadin erlezaintza antolatzekoa. Erlezaintzaren eta ezti-ekoizpenaren sektorea arautzen da Euskadin.
- Erabakia, 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiaren berri ematekoa eta Legebiltzarrera igortzekoa (Enpleguaren 15/2023 Legera egokitutako bertsioa). Egokitzapen horrek indartu egiten du erakundeen konpromisoa kalitatezko enplegu inklusibo batekin, Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialera bideratua. (2025/07/01)
- 144/2025 Dekretua, 2025eko uztailaren 8koa, gazteei eta 40 urtetik beherako ei lehen etxebizitza eskuratzeko abalak emateko programa arautzekoa.
- Gaztelagun programa, alokairuko prezioen gorakadara egokitzeko eta eremu tentsionatuetako onuradunak handitzeko laguntza berritzen duena. (2025/07/10)
- Euskadik BOE kalifikazioa galdu zuten 1.000 etxebizitza berreskuratzeko prozesua hasi du, jabeei azalera-eskubidea salduz. (2025/07/15)
- 148/2025 Dekretua, uztailaren 15ekoa, zeinaren bidez Ertzaintzako langileen lan-baldintzak araupetzeko akordioa onartzen den 2025-2028 aldirako. (2025/07/15)
- Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sektorean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2030 Planaren (HAZITEK) barruko espezializazio-esparruetan ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko proiektuak –lehiakorrak zein estrategikoak– egiteko laguntza-programa. 2025eko deialdia. (2025/07/15)
- Europako Batzordearen Regional Innovation Scoreboard delakoak Euskadi herrialde "oso berritzaile" gisa kokatzen du. (2025/07/17)
- 161/2025 Dekretua, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legea garatzen duena.
- 2025-2026 ikasturtean euskara ikastea doakoa da oinarrizko mailan. (2025-09-02).
- Debabarreneko lehentasunezko jarduketa-eremua (LJE): 1 milioi euroko zuzeneko dirulaguntza Eibarko Udalari, «Made in Eibar» proiekturako, «Dibertsifikazio ekonomikoa: turismo- eta merkataritza-sektorea» proiektu eragilearen esparruan (2025-09-02)
- Bilbo bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu izendatzea erabaki da. Bizkaiko hiriburuarekin, alokairu-merkatua arautzen duen figura horrek EAEko biztanleen % 36 babesten ditu. (2025/09/04)
- Euskadik aktiboki parte hartu du Municheko Eskualde Automotrizen Aliantzaren bileran, eta Municheko Adierazpena sinatu du. (2025/09/10)
- 2025-2026 ikasturtean euskara ikasteko laguntza-programa. 58,2 M € (2025/09/10)
- Siderurgiako, Automozioko eta Fabrikazio Aurreratuko mahai sektorialak: Eusko Jaurlaritzak eta siderurgia-enpresek bat egin dute, sektoreari muga-zergen aurrean laguntzeko. (2025/09/15, 22 eta 29)

- Euskadiko enplegu eta tokiko garapen-planak martxan jarri dira Estrategia horrek udal-eskumena aitortzen du enplegu-politiketan, eta erakundeen arteko lankidetza indartzen du, enplegu-politika aktiboen integrazioa bultzatuz eta toki-eremuan kohesio sozial eta garapen ekonomiko handiagoa lortzeko oinarriak ezarriz. (2025/09/24)

- Gasteizko udalerria bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu izendatu da, hiri-bilbean sartuta ez dauden toki-entitate txikiek osatutako landa-eremua izan ezik. (2025/09/29)

- 2030erako Landa Garapenerako Estrategia eta Lurralde Garapenerako Programa (LGP) onartu dira, landa-ingurunean ekintza publikoa antolatzeko. Zeharka egiten da, lurralde-antolamendua, trantsizio ekologikoa, etxebizitza, mugikortasuna, osasuna, berrikuntza eta gizarte-kohesioa lotuz. (2025/09/30)

## 9.4. Laugarren hiruhilekoa

- Euskadi Eraldatuz 2030 inbertsio-plana abian jarri da (2025/10/01).

- Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetza Protokolo Orokorra (2025/10/07)

- 189/2025 Dekretua, urriaren 7koa, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunei aplikatzeko enplegu-pizgarriak arautzen dituena. Araudi horrek prestazioak lan-errentekin bateragarri egiteko aukera ematen du, eta hobari pertsonalizatuak sartzen ditu laneratzea eta enpleguaren kalitatea errazteko.

- Donostian martxan jarri da Europako lehen IBM Quantum System Two izenekoa. (2025/10/14)

- Euskadik indartu egin du industria-lankidetza Poloniarekin, euskal esportazioen hamar helmuga nagusietako bat den aldetik. Elkar ulertzeko memorandum bat sinatu dute Basque Trade Investment – Nazioartekotzeko Euskal Agentziaren eta Polish Investment and Trade Agency (AAPH) erakundearen artean. (2025/10/20)

- Mugiment Mahaia aurkeztu da, Jarduera Fisikoaren sustapena eta euskal gizartearen ongizate integrala helburu dituen foroa. (2025/10/22)

- Eusko Jaurlaritzak Berrikuntza Itsasargiak abiarazi ditu, Euskadi abangoardia zientifiko eta sozialeko Europako polo gisa sendotzeko. (2025/10/31)

- Euskadik «industria hobearen, industria gehiagoren eta emisio gutxiagoren» aldeko apustua indartu du, Hidrogenoaren Sare Tronkala hedatuz. (2025/11/03)

- 204/2025 Dekretua, urriaren 21ekoa, Euneiz Unibertsitatearen antolamendu- eta funtzionamendu-arauak onartzekoa. (2025/11/04)

- 205/2025 Dekretua, urriaren 21ekoa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautzen duen Dekretua bigarrenez aldatzekoa. (2025/11/04)

- 214/2025 Dekretua, azaroaren 4koa, Ertzaintzako langileen garapen profesionalerako sistemaren Dekretua aldatzen duena.

- Sidenor, Finkatuz eta BBK eta Vital banku-fundazioek osatutako Euskal Partzuergoak salerosketa-kontratua sinatu du Talgoko akzioen % 29,7 eskuratzeko. (2025/11/07)

- Indartuz Funts Estrategikoa 65 milioi €-rekin jarri da abian, Euskadiko ekonomia eraldatzen lagunduko duten inbertsioak finantzatzeko. «Indartuz kapitala SA» sozietate anonimo publikoa sortu da. (2025/11/11)

- SPRIk Euskadi 2030 Industria Planaren proiektu eraldatzaileak aurkeztu ditu. (2025/11/14)
- Eusko Jaurlaritzak 140 milioi euro bideratuko ditu Ikerketa Kooperatiboko Zentroen (IKZ) eta Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasuneko Zentroen (BERC) programetara, 2026-2029 aldirako (2025/11/18)
- 215/2025 Dekretua, azaroaren 4koa, zeinaren bidez bigarrenez aldatzen baita Ertzaintzan egindako zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko Dekretua. (2025/11/20)
- Gastronomia eta Elikaduraren Euskadi 2030 Plan Estrategikoa (GEPE 2030) aurkeztu da, EAEko elikagaien eta gastronomiaren sektorearen etorkizuna markatzen duen asmo handiko ibilbide-orria. (2025/11/24)
- 227/2025 Dekretua, azaroaren 25ekoa, Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartzen duena. Araudi berriak segurtasun juridikoa indartzen du, lankidetza-esparrua egungo erronketara egokitzen du eta parte-hartzea eta enpresa-eredu berrien garapena errazten ditu. (2025/11/25)
- Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Plana onartu da. Tresna nagusia da Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Legea garatzeko eta haren helburuak betetzeko. Helburu horien artean dago garraiobideen integrazioan aurrera egitea, jasangarritasun-irizpideekin efizientzia hobetzeko eta irisgarritasun unibertsala bermatzeko. (2025/11/25)
- Besaldi-Enplegu- eta inklusio-politikak ebaluatzeko organoaren lehen urte natural osoa eta funtziona-mendu-ziklo planifikatua burutzen da aurreikusitako arloetan: jarraipena eta ebaluazioa, prestakuntza eta komunikazioa, ezagutzaren sorrera eta lankidetza estrategikoa (2025/12/04). https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/besaldi/-/besaldi/hasiera/
- Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Metroaren 4. linea eraikitzea adostu dute. Hiri-inguruko garraiobidearen linea berriak Matiko, Deustu, Parkea, Moyua, Irala, Errekalde, Basurtu, Zorroza eta Irauregi geltokiak geltokiak zeharkatuko ditu. Bi erakundeek administrazio-izapideak azkartzeko konpromisoa hartu dute, Basurtu eta Alonsotegi arteko tartea igaroko den FEVEren egungso sarea kudeatzeko. (2025/12/05)
- Zuzeneko dirulaguntza bat eman zaie foru-aldundiei eta toki-erakundeei, Euskal Autonomia Erkidegoko lurreko, hiriko eta hiriarteko garraio publikorako, 2026ko lehen seihilekorako. (9.100.000.- €) (2025/12/09)
- 232/2025 Dekretua, abenduaren 2koa, guraso bakarreko familien araubidea ezartzen duena. (2025/12/16)
- Debabarreneko hiri-berroneratzea bultzatu da, Eibar, Ermua, Soraluze eta Elgoibarren hirigintza hobetzeko proiektuak bultzatuz. (8.300.000.- €) (2025/12/16)
- Osakidetzaren 2025eko ekitaldirako Enplegu Pubikoaren Eskaintza (2025/12/16)
- Azpiegitura eta Ekipamendu Sanitarioen 2025-2032 Programa berriaren aurkezpena 2025-2032. (1.600.000.000.- €) (2025/12/17)
- Arabako Foru Aldundiak eta URAk hitzarmen bat sinatu dute, 2016-2026 aldirako Gida Planaren barruan hornidura eta saneamendurako funtsezkoak diren sei obra bultzatzeko. (2025/12/18)
- Bat, Barik eta Mugiren elkarreragingarritasuna aurrerapauso garrantzitsua izan da Euskadiko mugikortasun jasangarrirako. (2025/12/18)
- 236/2025 Dekretua, abenduaren 9koa, energia berriztagarrien kanonaren erregelamendua onartzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (2025/12/22)
- Euskadiko garraio publikoan 2026an deskontuak egiten jarraituko dela bermatu da. 2022tik, Eusko Jaurlaritzak 50 milioi euro baino gehiago eman dizkie beste erakunde batzuei neurriari eusteko, eta beste 53 milioi Euskotrenek hartu ditu bere gain (2025/12/23).

- 2025eko bigarren seihilekoan, 620 etxebizitza berreskuratu dira parke babesturako, azalera-eskubidea saltzearen bidez (2025/12/26).

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO